OIARTZUNGO UDALA

E U S K A R A R E N
E R A B I L E R A
N O R M A L I Z A T Z E K O

P L A N A

(Laburpena)

2001

1- Sarrera

1) Planaren testuingurua

Euskal Autonomi Erkidegoko Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri-aginteek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntz eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du eta administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialen ezagutza derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomi Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen V. Titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erreglamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza prozesuaren oinarri ere badira.

Honi loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan duen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan da.

Xede nagusi berarekin Oiartzungo Udalak, bere aldetik, udalaren eskumeneko jarduera-eremuan euskararen egoera eta erabilera arautzen duen Euskararen Udal Ordenantza onartu zuen 1993ko udan.

Horrez gain, Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz Oiartzungo Udala partaide den Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Horiek horrela, UEMAk euskararen erabilera normaltzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal partaideen jarduera eremuan eta, horretarako, lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, elementu berriak erantsi dizkie lehenengo plangintzaldiko arauei.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrera pausu nabarmenak eman badira euskarazko hizkuntz gaitasuna duten langileen kopuruan, orain administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra azaltzen dira.

Horrela, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Oraindainoko urrats horiekin loturik, Oiartzungo Udalak, beraz, indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, berari dagokion euskararen erabilera normalizatzeko plana landu eta onartu du, dokumentu honetan azaltzen denez.

2- Helburuak

Oiartzungo udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da euskara planaren **helburu nagusia**, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara Planaren **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko ditu:

1. **Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

2. **Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza** izan dadin bermatzea.

3. **Euskara administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Testuinguru honetan Euskararen Erabilera Arauzkotzezko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zenetik, herri administrazioetan hainbat urrats eman da euskararen normalizazioa sustatu eta lortzearren. Horrela, uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea garatuz, herri administrazioek, besteak beste, bertako langileek bere lan eginkizunak euskaraz betetzeko **hizkuntza ezagutza maila egokia** lor zezaten neurriak hartu zituzten, 1990-1995 plangintzaldian.

86/97 Dekretuak aurreko plangintzaldian egindako ibilbideari jarraitu eta **ezagutzatik erabilerarako jauzia** emateko oinarriak ezarri zituen. Bigarren plangintzaldi honetan eginbeharreko nagusia erakunde bakoitzak bere hizkuntza egoeratik abiatuz *euskararen erabilera normalizatzeko planak* zehaztea eta abian jartzea izango da

3- Udaleko lanjardunen egoera eta lehentasunak

Lanjardunak administrazioak burutzen dituen espediente edo ekintzak dira, hots, administrazioaren eguneroko funtzionamenduaren alderdi dinamikoak. Lanjardunok hobeto aztertzeko lanurratsetan zatitzen dira, gerora proposamenak ere zehatz egiteko moduan. Lanjardunen informazioa lortu eta osatzeko udaleko ataleko arduradunekin elkarrizketak egin dira eta gero langileekin osatu da informazioa.

1.1. Lanjardunen egoera

Oiartzungo udalean, 85 lanjardun nagusi aztertu dira. **Lanjardun** horietatik %91,76 euskaraz egiten dira; euskarazko eta elebietako lanjardunen indizea, berriz, %96,47da.

LANJARDUNAK		E	Elebietan	G
Kp.:	85	78	4	3
%:	%100,00	91,76	4,70	3,52

Barne harremanetako lanjardunetatik %100 euskarazko eta ele bietako lanjardunak dira.

Kanpo harremanetako euskarazko eta elebietako larjardunak %93,88 dira.

Lanurratsetatik %96,05 euskarazkoak eta elebietakoak dira.
%86,51 euskarazkoak.

LAN-URRATSAK		E	Elebietan	G
Kp.:	304	263	29	12
%:	%100,00	86,51	9,53	3,94

E: euskaraz **G**: gaztelaniaz

Aurrekoen artetik, hau da barne-harremanetako lan-urratsen egoera:

BARNE HARREMANAK		E	Eelebietan	G
Kp.:	164	161	1	2
%:	%100	98,17	0,60	1,21

E: euskaraz **G**: gaztelaniaz

Barne harremanetako lanurratsen artean %98,78 dira elebietakoak eta euskarazkoak.

Ondorengo hau, berriz, kanpo-harremanetako lan-urratsena.

KANPO HARREMANAK		E	Elebietan	G
Kp.:	140	102	28	10
%:	%100	72,85	20	7,14

E: euskaraz **G**: gaztelaniaz

Kanpo harremanetako euskarazko eta elebietako lanurratsak %92,86 dira..

4- Bi urteotarako lehentasunak

Lehentasuna eta epea	Lanjardun kopurua guztira	Eragindako atala	Lanjardun kopurua atalka
2001. L1 Lanjardunak	9	Idazkaritza	5
		Kontuhartz.-ekonomia zerbitzua	2
		Hirigintza lanak-zerbitz	2
2002. L2 Lanjardunak	4	Kultura (liburutegia)	1
		Kontuhartz.-ekonomia zerbitzua	2
		Hirigintza lanak-zerbitz	1

L1, 2001. URTERAKO LANJARDUNEN PROPOSAMENA

	Atala	Eragindako Lanjardunak
2001: L1 Lanjardunak	IDAZKARITZA	1. Hauteskundeetarako zentsua zuzendu (29) 2. Lansariak (31) 3. Gizarte segurantzan altak eta bajak eskatu (33) 4. Gizarte segurantzan ordainketak (34) 5. Amatasun baimena (35)
	HIRIGINTZA-LANAK-ZERBITZUAK	6. Zuzeneko izendapen bidezko kontratazioa (Zerbitzuak) (40) 7. Enkante eta lehiaketa bidezko kontratazioa (Zerbitzuak) (41)
	KONTUHARTZAILETZA	8. Uraren kontratu eta kontsumoaren jarraipena (54) 9. Ordenantzak: Ordenantza fiskalak (55)

L2. 2002. URTERAKO LANJARDUNEN PROPOSAMENA

2002: L2 Lanjardunak	HIRIGINTZA-LANAK-ZERBITZUAK	1. Hiri-plangintzarako arau subsidiarioak aldatu (43)
	KONTUHARTZAILETZA	2. Gainbalio zergaren kitapena egin (56) 3. Kontribuzioen kudeaketa (57)
	KULTURA	4. Liburuak katalogatu (73)

Oharra: Parentesi arteko zenbakia lanjardunak aplikazio informatikoan daukan zenbakia da.

5- Alorkako egoera

5.1. Hizkuntza gaitasuna

Guztira lanpostu zerrendan 71 langile agertzen dira (plantilla organikoan 68 lanpostu badira ere, iaz arte Haur eskolako udal langileak izan diren 4 langileak hartu dira kontuan eta ez bakarra). Horietatik 69 lanpostuk derrigortasun data ezarrita dute. Hauetatik 8 lanpostu hutsik daude, 48 langilek egiaztatu dute dagokien hizkuntza eskakizuna, 5 pertsona adinagatik salbuetsita daude, eta 8 dira hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenak. Derrigortasun datarik ez duten 2 langileek egiaztaturik dute dagokien hizkuntza eskakizuna. Ondorioz, Oiartzungo Udalean, hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila %76,19koa da

5.2. Kanpo harremanak

KANPO HARREMANAK										
Administrazio atala	Hizkuntzaren erabilera Ahoz.					Hizkuntzaren erabilera Idatziz.				
	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.
OROKORRA	158	85,44	135	0	23	139	97,12	98	37	4

Kanpora begira, **helburu nagusia** harreman hizkuntza ahoz eta idatziz euskara izatea da, betiere kontuan izanda herritarrak hizkuntza aukeratzeko eskubidea daukala. Bi urtera begira euskarazko ahozko harremanen maila egonkortu eta kualitatiboki aberastea izango da jomuga. Idatzizko harremanei dagokienez, kontuan izanik biztanleen ia %18 erdaldunak direla (1000 pertsona inguru), gaztelania hutsezko dokumentuak

desagerrarazi eta euskarazko eta elebietako erabilera %100era heltzea izango da helburua.

5.3. Barne harremanak

BARRUKO HARREMANAK										
Administrazio atala	Hizkuntzaren erabilera Ahoz.					Hizkuntzaren erabilera Idatziz.				
	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.
OROKORRA	68	97,88	66	0	2	96	96,88	92	1	3

Ahozko barne harremanak

Euskararen ahozko erabilera ia erabatekoa izanda, erabilera %100 euskaraz izatea jarriko dugu **helburu**. Honetarako, beharrezkoa izango da langileek gaztelaniaz egiteko ohitura gainditu eta udal bulegoetako ahozko lan hizkuntza bera ere euskara izatea.

Idatzizko barne harremanak

Euskarazko laginak kontuan hartuta (ez eusk. + elebietakoak), barrurako idatzien erabilera indizea ia %100ekoa da. Txostenak, memoriak, dokumentu kontableak, bilera agiriak,... euskaraz egiten direnez gero, lehen urte honetan pertsonal saileko dokumentuetan jarriko da arreta, gazteleraz egiten direnak euskaraz izan daitezen.

5.4. Hizkuntza paisaia

HIZKUNTZ PAISAIA

Administrazio-atala	KANPOKO Hizkuntz paisaia					BARRUKO hizkuntz paisaia				
	Lagina	Adie. %	E	Bi	G	Lagina	Adie. %	E	Bi	G
OROKORRA	**43**	**97,67**	**36**	**6**	**1**	**634**	**83,91**	**500**	**32**	**102**

Helburua Udalaren irudian, oro har, euskararen presentzia bermatzea da, batez ere, begi-bistakoak izanik, eragin nabarmena duten elementuetan: bulegoetako errotulazioa, etiketak, barruko informazioa, zigilu, fax orri... eta abar euskaraz daudenez, egoera hori mantentzea eta sor daitezkeen berriak bermatzea. Tresneriaren errotulazio hizkuntza euskaraz egotea izango da helburua. Beharrezkoa izango da hornitzaileekin harremanetan jartzea, tresneriaren errotulazioa euskaraz izateko.
Elebitan dauden elementuak (38) euskara hutsean jarriko dira: zigiluak, karpetak, egutegiak, ...

5.5. Baliabide informatikoak

Oiartzungo Udalean erabilera arrunteko tresnak euskaraz badaude ere (Office 2000 eta Windows 98), hain erabilia den IZFEk eskainitako tresna informatikoa gazteleraz dago, langileek ahal duten neurrian euskaraz erabili arren. Honetaz gain, IZFEren aplikazioak erabili behar dituzten ordenagailuetan Windows gazteleraz jarri behar izan dute, aplikazioa ez delako euskarazko bertsioarekin bateragarria.

Administrazio-atala	Programa informatikoa	Programaren izaera	Hizkuntza	Hizkuntza aldatzeko aukerak
OROKORRA	Windows 98 Office 2000	Testu-trataera Datu-basea Kalkulu-orria	Euskaraz / Gaztelaniaz	
IDAZKARITZA	Sarrera-irteerak	Erregistroa (IZFE)	Gaztelaniaz	IZFEren programa euskaratzeko eskatu
IDAZKARITZA	Nominak/ TC1-2	Gaion kudeaketa (IZFE)	Elebitan	
OROKORRA	Biztanleen errolda	Erregistroa (IZFE)	Gaztelaniaz	IZFEren programa euskaratzeko eskatu
OROKORRA	Ibilgailuen errolda	Erregistroa (IZFE)	Gaztelaniaz	IZFEren programa euskaratzeko eskatu
KONTUHARTZAILETZA	Kontribuzioak Aurrekontua SIGE	Ekonomi programa (IZFE)	Gaztelaniaz	IZFEren programa euskaratzeko eskatu

Helburua baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea da, betiere euskarazko bertsioek, erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.

IZFEren eskutik jasotzen diren aplikazioei dagokienez, aipatu beharra dago nagusiki gazteleraz daudela. Zenbait dokumentu (ura eta zaborraren ordainketarako agiria, adibidez) elebitan eskeintzen dituzte; beste batzuetan berriz, euskaraz egiteko aukera ere badago (nominak), baina, esan bezala, lanerako tresna gazteleraz dago, guztiz ez bada ere, nagusiki. Beraz, tresna hauek euskaratzeko eskatuko zaio IZFEri.

Horrez gain, euskararen erabilerarako interesgarria litzateke (baita udalaren beraren funtzionamendurako ere) informatika sareetan sartzea, administrazio publikoek eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobetxatu ahal izateko (Euskalterm, administrazio idazkiak, hiztegiak).

6- Udal aginte organoetarako zein administrazio atal guztietarako jarraibideak

6.1. Zerbitzu hizkuntza

Legeriak hizkuntza ofizialez dioenaren kalterik gabe, euskarak herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du udal organo politiko, administrazioko atal eta lanpostu guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman mota guztietan ziurtatu beharko da lehentasunez eta nagusiki euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgoragailua erabiltzen denetan, idatzizkoan eta bai tresna elektroniko, informatiko zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (internet, fax, posta elektroniko etab.etan).

Era berean Oiartzungo Udalak, bere kabuz edo/eta UEMAko beste udalekin elkartuta, dagozkion neurriak hartuko ditu bere udalerri mugen baitan herritarrek gainerako administrazio publiko zein erakunde ofizialengandik jasotzen dituzten zerbitzuak —osasungintzakoak, hezkuntzakoak eta epaitegietakoak bereziki— euskaraz ere eman daitezela bermatzeko.

a) Ahozko harremanetan

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz e.a. emandakoak), euskaraz emango dira.

Langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarrari, eta gero administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

b) Idatzizko harremanetan

Herritarrei, erakunde pribatuei, enpresei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz egongo da, hauetakoren batek espreski gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu, horrelakoetan euskarazko jatorrizkoaren gaztelaniazko itzulpena emango zaio, jatorrizko euskarazkoaren itzulpena dela adieraziz.

* **Komunikazio administratiboak: administrazioen arteko harremanak:**

1. Hego Euskal Herriko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz emango da argitara eta beraiengandik gutxienez euskaraz ere jasotzea onartzeko irizpide nagusia jarraituko da beti.

Horrenbestez, horietakoren batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiriak bidaliz gero—, igorleari itzuliko zaizkio kasuan kasuko dokumentuak eta ondorio guztietarako ez hartutzat jo direla adieraziko eta gutuna bidaliko adieraziz euskararen aldeko diskriminazio positiboaren izenean, adierazpen administratibo guztiak euskaraz jaso nahi direla.

2. EAEko lurralde esparruaren barruan kokatutako Estatuaren eta honen menpeko administrazioetarako komunikazio administratiboak ere euskaraz bidaliko dira. Administrazioetatik gaztelera hutsean jasotako idazkiak bueltatu egingo dira –beti ere, idazkiak eragindakoa kaltetu barik- gutun batekin batera. Gutun hori euskaraz eta gazteleraz egongo da idatzita eta, euskararen aldeko diskriminazio positiboaren izenean, adierazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da,

3. Aipatu esparruz kanpoko gainerakoei zuzendu beharreko dokumentazioa gaztelaniazko itzulpenaz lagundurik igorriko zaie, dagokion komunitatearen hizkuntzan eta gutxienez euskaraz ere bidal dezatela eskatuko. Nolanahi ere, udal bakoitzak egoki deritzon moduan jokatzeko eskumena du.

6.2. Lan hizkuntza

Lan hizkuntzaren inguruko jarraibide hauek, batez ere, memoria, azterketa, txosten eta zirriborroei buruzkoak dira, eta bai hizkuntza ofiziala aukeratzeko dauden legezko xedapenek ukitu gabeko bestelako gaiei buruzkoak ere.

Jarraibideak, berriz, honako hauek dira:

Plan honetan komunikazio administratiboetarako emandako jarraibideari kalterik eragin gabe, administrazio ataleko dokumentazioa hizkuntza bakarrean sortuko da, euskaraz.

Hizkuntz irizpide honi jarraiki, lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei, kasuan kasuko euskarazko bertsiorik egonez gero.

*** Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen irizpide osagarriak**

Kontuan hartuz, UEMArekin bat eginik, udal honen hizkuntz helburu behinenetakoa dela, erdaretara jo beharrik gabe, *euskara administrazioko eta gizarte harremanetako hizkuntza* bihurtzea, udaleko aginte organo, administrazio-atal eta lanpostu orok gai izan behar du euskaraz burutzeko bere ahozko eta idatzizko hizkuntz produkzio arrunt eta tekniko guztia.

Itzulpenak, horrenbestez —euskaratik edo euskarara direla—, eginkizun osagarria izango du bakar-bakarrik, aurreko puntuetan euskararen erabilerarako eman diren jarraibideekin lotuta ager litezkeen kasuan kasuko beharrizan soiletarako.

Hau da, zehazki, hizkuntzen erabilerarako jarraibideen ondorioz aurreikusi den itzulpen beharrizana: herritarrei nahiz beste administrazio batzuetara elebitan bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskarara itzultzea.

Aipatu itzulpen beharrizanari nola erantzun zehazteko, berriz, udal langileak arduratuko dira itzulpena egiteaz agiri labur (orri 1) edota errepikakorra denean eta itzulpen-zerbitzu batengana joko da idazki luzeagoen edota sormenezkoetan. Horretarako, UEMAko web gunean eskura izango dute zerbitzu hori emateko prest dauden euskal itzultzaileen zerrenda.

7- Hizkuntza irizpideak

Jarduera esparru desberdinetarako hizkuntza irizpideak

Hizkuntza irizpideak ere plana gartu ahala joango dira jorratzen. Besteak beste, honako jarduera esparruok hartuko dira kontuan:

-Hizkuntza prestakuntza eta etengabeko prestakuntza
-Kontratazio administratiboak
-Dirulaguntzak
-Administrazioaren irudia eta argitalpenak
-Ekitaldi Publikoak
-Udal baimenak

Ondoren lanean hasteko proposamen batzuk egingo dira, beti ere, erakundeen hizkuntza politika koordinatze aldera, aurrerantzean osatu edo egokitu egin daitezkeenak.

7.1-Hizkuntza prestakuntza eta etengabeko prestakuntza

- **Hizkuntza Prestakuntza**

Hizkuntza prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraitu beharreko politikak kontuan izan behar ditu bere lanpostu zerrendako hizkuntz eskakizun zehatzak, eta bai plan honek ataletarako jarritako helburuak ere.

Legeek arautzen dutena jarraituz, beraz, aginduak, baimenak eta laguntzak emango dira langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntza prestakuntza egokia lor dezaten.

Hizkuntza prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraituko duen politikak lanpostu zerrendari aplikatzen zaion derrigorrezko indizeak adierazten dituen hizkuntza helburuak izango ditu kontuan.

Horretarako irizpide argiak eta bateratuak beharko dira lan-orduetan hizkuntza prestakuntzako baimenak ematerakoan:

- Derrigorrez bete beharreko hizkuntza eskakizunek dakartzaten prestakuntza-beharrizanei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela-eta, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langileen eskariak jarriko dira lehenengo.
- Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntz erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.
- Edozein kasutan, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langile guztiak izango dira kontuan hizkuntz prestakuntza ematerakoan, karrerako nahiz behin-behineko funtzionarioak izan.

Hizkuntz prestakuntza aldia bete eta, kasuan kasuko gizalegezko luzapenak eman ondoren, dagokien HE egiaztatu ez duten izaera berezikoak ez beste lanpostuetako langileei plangintzaldi hau arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 44. atalean aurreikusten den lanpostutik kentzeko espedientea hasiko zaie.

- **Langileen etengabeko prestakuntza**

Plangintzaldi honen lehen urtean udalean egin diren ikastaroen eta hauen hizkuntzaren egoeraren azterketa egingo da. Emaitzen arabera finkatuko dira aurrerako hizkuntz irizpideak. Bien bitartean, ondorengo hizkuntza irizpide orokorrak aplikatuko dira:

- Ikastaroak euskaraz izan daitezen ahalegina egingo da.
- Prestakuntza ekintzen eskaintzen artetik, izaera orokorra dutenek izango dute lehentasuna.
- Prestakuntza eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.
- Euskarazko eskaintzaren ezaugarriek gaztelaniazkoarenak bezain erakargarriak izan beharko dute.

7.2.-Kontratazioak

Bi kontratu mota bereizi ditugu: alde batetik, langileak kontratatzerako orduan kontuan izan beharreko irizpideena eta bestetik zerbitzuak kontratatzerako orduan jarraituko den prozedura eta kontuan izango diren puntuak.

LANGILEAK KONTRATATZEKO

Langileen kontratazioari buruz, uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 legeak, II Idazpurua, I. atalburua, 15.1.atalean d) puntuan zehaztutakoari jarraituko zaio.
15. Atala: 1. Lanpostu-zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

(...)

d)Hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigorrez hizkuntza eskakizuna eta horrek indarra galtzen dueneko eguna (...)"

Beraz, Udalean lanpostuak betetzeko hizkuntza eskakizuna eskatuko da.

- Derrigorrez, Udal-lanpostu zerrendako lanpostuetan jasota dauden moduan.
- Derrigorrez, aldi baterako lanpostuak betetzeko denean nahiz eta Udal lanpostu-zerrendakoak ez izan.
- Kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sinatuko dira.

[(1)]ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

1. Kontratu guztietan **"euskararen eskakizuna" klausula** sartuko da, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean[(1)] ezarritakoaren arabera. **Zerbitzu bat hartzeko kontratazio guztietan *euskararen eskakizuna* klausula derrigorrezkoa izango da guztietan. Kontratatzeko baldintza finkoetako bat izango da eta baldintza-pleguak jasoko du. Hau da,**

2. Eman beharreko prestazioak zerbitzu publikoaren erabiltzaileekiko, edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18. d) atalean ezarritakoari jarraiki, honako neurri hauek hartuko dira:

   a) Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek Euskadiko hizkuntza ofizialetan atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.
   b) Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz ere ematea bermatu beharko du kontratistak.
   c) Kontratazio-gaia herritarren zuzeneko zerbitzu-prestazioa duenean edota herritarren adierazpenerako jarduketetan (errotuluak, etab…) baldintza horiek betetzen ez badira edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntza gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez bada, espedientea irekiko da kalte-ordainak eskatzeko, edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.
   d)

Udaletan egin ohi diren kontratazio motak kontuan hartuz, Oiartzungo Udalaren kontratazioen lehen azterketaren arabera, lau kontratu mota daude: (Ikus III. Eranskina, 6. Koadernoa)

K-1/ Udal ondasunen mantenimendu-kontratuak
K-2/ Aholkularitza teknikoa emateko kontratuak
K-3/ Herritarrei zerbitzua emateko kontratuak
K-4/ Udal instalazioen esplotazioa
K-5/ Hornidurak

---

(1) "Kontratazio arloan erabiliko diren neurriak, batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezen"

7.3.-Dirulaguntzak

Gizarte-zerbitzuetakoak ez beste dirulaguntzak esleitzerakoan —kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat—, udalak kontuan izango du eskatzaileak bai eskaera egiteko zein zerbitzua emateko dagien euskararen erabilera eta, zehazkiago, ondorengo eskatuko du:

1. Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izatea.

2. Dirulaguntzaren xede den ekintza —haur eta gazteei zuzendua denean bereziki— euskaraz egingo dela bermatzea.

3. Dirulaguntzaren xede den ekintzaren publizitatea euskaraz egitea, gutxienez beste hizkuntzen maila berean bai kopuruari zein tamainari dagokienez.

7.4.-Administrazioaren irudi eta argitalpenak

Oiartzungo Udalaren irudi eta argitalpenetan euskarak behar duen presentziari buruzko irizpideak finkatzeko Euskararen Udal Agintarauan eman ziren jarraibideak beteko dira; horrenbestez:

a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen idazki oro beti euskaraz behintzat argitara emango da.

b) Udalerrian zabaldu beharreko agiriak euskaraz argitaratuko dira. Ulertzeko gaitasunik ez duten herritarrek udal bulegoan eskatu eta jaso ahalko dute agirion gaztelaniazko bertsioa.

c) Iragarpen ofiziala egin beharreko agiriak euskaraz argitaratuko dira. Iragarpenean dioenak eragina duen herritarrak euskarazko hizkuntz gaitasunik izan ezean udalak gaztelaniazko itzulpenaz batera iragarriko dio pertsonalki; era berean, egoera berean diren gainerako herritarrek ere udal bulegoan eskatu eta jaso ahalko dute agirion gaztelaniazko bertsioa.

Oiartzungo Udaleko irudi eta argitalpenetan euskarak behar duen presentziari dagokionez, irizpide orokorrak aztertu eta ezarriko dira, batetik, eta irudi edo argitalpen mota bakoitzaren araberakoak, bestetik. Horrela nortasun korporatiboa, irudi grafikoak, argitalpen arinak (informazio orri, eskuliburu, diptikoak, liburuxkak, katalogoak) eta iragarkiak (taulak, komunikabideak) landuko dira bereziki lehenengo urtean, bai euskararen presentzia bermatzearen aldetik, bai euskararen egokitasun eta aberastasunaren aldetik, (euskara argia eta ulergarriaren eredua landuz).

7.5.-Ekitaldi Publikoak

Euskararen Udal Agintarauan xedatzen dena jarraituz (i. ibid. 25. art.), udaleko edo honen erakunde autonomoetako kargu eta enplegatuek euskara erabiliko dute udalerrian egin litezkeen ekitaldi publikoetan, erakundean duten kargu edo lanpostuagatik ari badira.

7.7 Udal baimenak

a) Hirigintza:

1) Udalak herritar arruntei edota jardunbide honetan diharduten enpresei baimenen bat eman behar dienean, ondorengo baldintzapean emango die: ageriko hizkuntz erabileran bederen (iragarpen, errotulu, ohar, seinale etab.etan) euskara erabiltzekoa, alegia edota gutxienez gaztelaniaren pareko presentziaz.

2) Irekitzeko baimena emateko espedientean udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari.

b) Udal instalazioak: Edozein delarik ere ekitaldia, udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Oiartzungo Udalak euskara erabiliko dela ziurtatzea exijituko du, jendaurreko ekitaldietan batik bat.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta udalaren hizkuntz baldintzei jaramonik egiten ez badie, udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimen-ukapena, isuna…) hizkuntz araudia bete ez dutenen aurka.

c) Jaietako postuak: Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenei udalak honako neurriak betetzearen baldintzapean emango die:

- Prezioen eta oharren errotuluak bederen euskaraz jartzea.
- Postua girotzeko erabiliko den musika euskal musika izatea.